


Iraganaren argia



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA



ANTTON OLARIAGA

U rte berria hasia dela eta, denok bat besteari opatzen diogu zoriona, esperantza izanez etorkizuna iragana baino gehiago argi ekarle izanen zaigula. Hain zuzen ere, orainaldia goibel agertzen zaigun garai hauetan –bake prozesuaren aitzinatze motelegia, miseria sozialaren hedapena, euskararen gainbehera, eskuin muturraren garraipenak, klima aldaketa, migratzaileen zapalkuntza, eta abar–, ateriak gerorako ditugu igurikatzen anitzek, eta itxaropen horretan egiten dugu lan.

Jo eta ke ari gara arlo guzietan, tarrapatata, presazko arazoak konpontzeko presiopean, denbora murriztegia baimenduz geure buruari geldialdiak egiteko eta burumuina seriozki elikatzeke. Garaikidetasunaren eta etorkizunaren prestaketaren premiak dizkigu egunero ekintza eta eleak moldatzen. Bizkitartean, iraganaren argia baitezpadakoa dugu eginbehar horietan, eta iruditzen zait argi horren eskasa gero eta gehiago zaigula eskas.

Adibide konkretutzat daukat Ipar Euskal Herriko historiaurreko arkeologoen egoera larria. Gauzak diren bezala errateko, hirurogei urtez petiko bi arkeologo profesional baizik ez dira aurkituko eskualde honetan: batek lehen giza

presentzia du aztergai, besteak lehen laborarien aztarnak. Beren ikerketen balioa ezagutua da, bai Euskal Herrian, bai atzerrian. Tokiko jendeek beren interesa erakusten diete bi gazte horiei, herrietan egiten dituzten hitzaldietara joanez, eskoletara gonbidatuz. Baina hara: haien ikerketak diruztatuko lituzkeen tokiko erakunderik ez dute aurkitu, eta ondorioz, profesional moduan ez, baina boluntario gisa segitu beharko lituzkete beren miaketak, ogibidea xerkatuz Euskal Herritik kanpo, arkeologiak balio ofiziala daukan lurralde arrotzetan.

Argi dago Euskal Elkargo berriaren gain litzatekeela tokiko arkeologiaren garapena, berriki kontratatu dituen hainbeste funtzionarioen artetik bi gazte haiek ere enplegatuz. Zergatik ez ote du egiten?

Teknikariek gaina hartu dietelako hautetsiei? Arduradunei ideologikoki desegokia zaielako iragana gehiegi ikertzea? Alta, euskaldunok lehenik, besteek ondotik, on genuke gure historiaurrea hobeki ezagutzea; ikasle eta irakasleek nahiko lukete euskarazko eskuliburuetan duela berrogei urteko datuak erreberitzea.

Entzun ditut batzuk erraten Ipar Euskal Herriko euskaldunek berek nahitara oztapatzen dutela historiaurreko arkeologia,

hots, euskararen aztarnarik aurkitzen ez den garaiko arkeologia, beren buruaz eta beren hizkuntzaz daukaten “kontaketa nazionala” deuseztatuko lukeelakoan.

Nik ez dut uste hori egia denik: kontaketa nazionalak, mitoak, baitezpadakoak dira hizkuntza eta kultura baten bizi-raupenerako –Asisko Urmenetak ederki erakutsi du hori *Gartxot* figuraren bidez; baina ez dut uste euskaldun gehienak ikerketa zientifiko berrien beldur garenik, ez ditugulako gure hizkuntza eta kultura arrazoi historikoengatik soilik salbatu nahi. Iruditzen zait alderantziz Ipar Euskal Herrian historiaurreko arkeologia profesionala sostengatzeko ahalmena daukan erakunde bakarrak ez duela hori egin nahi gure ondarea ez duelako funtsez kontuan hartzen: behar kultural garaikide larrienei bakarrik eskainiz arreta, parte hartzen du gure iraganaren ukazioan.

Eneko Bidegainek *Lurraldea eta herria* (Pamiela, 2018) saiakeran egin proposamenetan dago erakunde bateratzailearena: gerorako itxaropena dut ere erakunde hori, bereziki ikerketa arloan, Euskal Herri osoko ikerleak sostengatuko lituzkeen erakundea, iraganaren argia ekar liezagukeen etorkizuneko erakundea, hots. ●